



2014KO URRIAREN 3KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko irailaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 78 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HOGEI ZENTIMO (68.384,20 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

14-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2014ko irailaren 19tik aurrera, astean 3 egun eta egunean bi ordu. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a izango da.

Goierrin indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egoera ezagutzeko diagnostikoa, arreta eta koordinaziorako protokoloa diseinatzea.- Ordiziako Udalari BI MILA ETA LAUROGEITA BI EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMO (2.082,24 €)ko faktura ordaintzea. Lan hau Goierriko udalerriekin elkarlanean gauzatu da eta gastuen banaketari dagokionean, herri bakoitzak dituen biztanle kopuruaren arabera jarriko du dirua.

IV.- ARRATOIEN AURKAKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.-



Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2014ko abuztuaren 7ko foru aginduaren bitartez, Técnica Sanitaria Ambiental, S.L., I.F.Z.: B48854483, enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez "arratoiak eta intsektuak hiltzeko" zerbitzua emateko esparru akordioa (X14006) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2014ko irailaren 26an emandako txostenaren arabera proposatu du "arratoiak eta intsektuak hiltzeko" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko mila lauehun eta hemezortzi euro eta bost zentimo (1.418,05 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua Técnica Sanitaria Ambiental, S.L., I.F.Z.: B48854483, enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua emateko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X14006) Técnica Sanitaria Ambiental, S.L. enpresari (I.F.Z.: B48854483) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Técnica Sanitaria Ambiental, S.L., I.F.Z.: B48854483, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, "arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua" gastua jasotzen duen 1 227.07.413.00 kontusailaren kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak sei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature]